



**EBAZPENA, 2008ko maiatzaren 16an, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendariarena. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko hautagaien behin-behineko zerrenda argitaratzen da.**

Langileriaren Kudeaketa zuzendariaren 2004ko maiatzaren 26ko 4. artikuluan xedatutakoa betez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko hautagaien zerrendak kudeatzeko jarraipideak ematen dituen, honakoa

#### **XEDATU DUT:**

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan 2008/2009ko ikasturtean ordezkapenak egiteko hautagaien behin-behineko zerrenda argitara ematea.

Bigarrena.- Hezkuntza Laguntzako espezialistek ordezkapenak egiteko izangaien zerrendan jarraitzea, 2008-2009 ikasturteari begira, betiere 2008ko uztailaren 31 baino lehenago exijitutako titulazioetakoren bat dutela egiaztatzen baldin badute, Hezkuntza Saileko lan-legepeko irakaskuntza- eta hezkuntza-pertsonalaren indarreko hitzarmen kolektiboak III. eranskineko 1. epigrafean xedatutakoaren arabera eta 2007ko maiatzaren 7ko batzorde paritarioaren bileran hitzartutakoa kontuan hartuta.

Izangaien zerrendan Hezkuntza-Laguntzako espezialisten kategoriara sartzeko aipatutako titulazioetakoren bat edukitzea edo ez edukitzea identifikatuta egongo da zerrendetan, B(bai) edo E (ez) jarritz, HLE/EAE zutabean.

Hirugarrena.- Zerrenda horren aurka erreklamazioak aurkezteko epea 2008ko maiatzaren 20tik 26ra bitartean izango da (biak barne).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko maiatzaren 16an

**LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA**

**ITZIAR GARAIJAR AGIRRE**